

## **KANALAK**

Gure enpresak bezeroekin harremanak ezartzeko erabiliko dituen kanalak desberdinak dira. Alde batetik, ekitaldi bereziak egingo ditugu gure produktua iragartzeko, eta ekitaldi hauetara zenbait enpresa gonbidatuko ditugu interesa duten jakiteko.

Online web-orrian ere sortuko dugu, gaur egun Interneta funtsezkoa da edozein sektoreetara iristeko. Gazteeten eta edozein adinetako erabiltzaileek egunean ordu asko jarduten dituzte, eta aukera paregabea da gure enpresak eskaintzen duena ezagutzera eramateko.

Bestalde, iragarki-kartelak jarriko ditugu hasieran kleetan zehar. Honela edozein ibiltari ohartuko da gure enpresaren presentziataz. Hiri nagusietan lokalak jarriko ditugu, eta ikus-leihoetan ere produktua ikusaraziko dugu.

Azkenik, auto- edo eraikuntza-enpresekin harremanak finkatuko ditugu, modu honetan, bezeroak auto bat edota etxe bat eroatera joatean, enpresa horrek gure enpresaren produktua eskainiko dio (aliantza bat).

### **Nola saldu:**

Salmenten aldetik, gure produktua/zerbitzua online kontratatu daiteke, edo bestela, gure fabrika edo egoitzara etorri eta han eskaintzen duguna ondo ikusi ondoren, ordainketa egin.

### **Produktua nola banatu:**

Gure produktua ezin dugu beste edozein produktu bezala banatu. izan ere, gure produktuak instalazio-prozesu bat behar du, horrenbestez, bezeroek bi aukera edukiko dituzte:

1. Gure egoitza edo fabrikara etorri eta guk hor prozesua burutu.
2. Guk langileak bezeroak behar duen lekura eramane eta prozesua han burutu, hau eraikuntzen kasua da adibidez (hau apur bat garestiagoa izango litzateke, garraioa ere kontuan hartu behar delako).

